


# Oiartzun

OIARTZUN EZAGUTZEN



alamy

Egileak:

Image ID: DG4M2D  
www.alamy.com

Talde harrigarria

LH5



Ikastolen Elkartea

# Oiartzun gozatu

MENDITXARI



## Aurkezpena

Kaixo, lagunak!  
Menditxari naiz.  
Jakin-min handia duen  
txakurtxo naiz.  
Betidanik izan dut gauza  
berriak ezagutzeko eta  
gozatzeko gogo bizia.

Welcome!

Â¡Explora, descubre, sueña!

Bisitatu Oiartzun gureherria.eus  
erabiliz!

## Presentación

Halá ere oso ausarta  
naiz. Erronkei aurre  
egin eta gaitztea  
lortzen dut.

# Oiartzun begirada batean

## Kokapena

Oiartzun Gipukoako iparraldean kokatuta dago, Oarsoaldean.



## Erliebe-elementuak

Oiartzun, haran batean kokatuta dago. Bertatik pasatzen da Oiartzun ibaia. Herriaren inguruan mendi ugari daude: Aiako Harria, Bianditz, Urkabe, ...

## Bestelako informazioa

Gure herrian pertsona ospetsu ugari daude, adibidez: Xabier Lete, Alaitz Telletxea, Maider Zabalegi, Manuel Lekuona, Ander Lizarralde, Alaia Martin, Antton Kazabon, Andoni Imaz, ...

# ZER IKUSI (Interesgune naturalak)

## BIANDITZ



Bianditz Arritxulegi eta Bianditzeko mendilerroaren artean dagoen mendia da.Â Bianditzek 844 m-ko altuera du. Tontorra Lesakako lurretan daukanez, ezin dugu esan Oiartzungo mendirik altuena denik.

Bertan, zuhaitz mota ugari topatzen dira (gaztainondoak, haritzak...). Ugariena pagoa da.

# ZER IKUSI (Interesgune naturalak)

## OIARTZUN IBAIA



Oiartzun ibaiak Oiartzun, Errenteria, Lezo eta Pasaia zeharkatzen dituen 16,6 km inguruko ibilbidea eginez. Oiartzunen sortzen da Aiako Harriko parke naturaleko puntu anitzetan.

Oso zaharra da, 380 bat milioi urte ditu. 2300 ml-ko ur kopura jaisten du gutxi gorabehera. Hori dela eta, ibaiaren iturburuan IV. mendean Errenteriaren pareraino zen nabigagarria.

# ZER IKUSI (Interesgune artistikoak)

## SEBASTIAN MENDIBURU



Sebastian Mendiburu XVII. mendean bizi izan zen. Apaiza eta euskal idazlea zelako eskultura bat egin zuten bere omenez. Eskultura 1920. urtean J.Etxeandiak egindakoa da. Mendiburu eskultura Oiartzunen kokatuta dago, Elizalde auzoan, plazaren behekaldean geratzen den lorategi batean.

Eskultura brontze eta granitoz egin dago. Sebastianek apaizaren sotana bat darama. Mendiburu aulki handi batean eserita dago eskutan duen liburuari begira.

# ZER IKUSI (Interesgune artistikoak)

## HIPATIA PARKEA



Hipatia parkea Oiartzungo plaza inguruan dago. Bere izena Hipatia da eta gazteak filosofatzera eta jolastera joaten dira bertara.

Hipatiak gutxi gorabehera 1.800 m<sup>2</sup> inguruko azalera du. Eremu horretan, eta altuera maila desberdinetan banatuta, zuhaitzak ditu. Bertan sei zutabe daude koloretazko kristalez beteta.

Hipatiak bi ate ditu, bat goian (iparraldean) eta bestea behean (hego-ekialdean).





# Zirkuituaren deskribapena

## Zure zirkuituaren lehen urratsa



- Tolaitatik Sebastian Mendibururen eskultura ikustera joateko, maldan gora joan 100 m inguru.

### Deskribapena

Ondoren, ezkerrera biratuz maldatxoa igo eta, jardintxo batetan, topatuko duzu Sebastian Mendibururi egindako estatua.

# Zirkuituaren deskribapena

## Zure zirkuituaren bigarren urratsa



- Lehenengo interesgunetik bigarren interesgunera joateko,

### Deskribapena

Sebastian Mendiburutik Hipatiara joateko, behean geratzen den maldatik joan. Hor ondoan dagoen lorategira sartu. 50 m-ko distantzia besterik ez dago batetik bestera.

## Zure zirkuituaren hirugarren urratsa



- Hipatiatik Oiartzun ibaira joateko, Hipatia parkeko beheko atetik atera eta jo eskubira, malda behera.

### Deskribapena

Malda bukatzerakoan, biribilgune bat topatuko duzu. Bertan, zuzen jarraitu, ikastola ondotik pasa eta segi zuzen malda behera Iturriotz auzorako bidean. Bide horretan aurrera jarraitu Oiartzun ibaia ikusi arte.

# Zirkuituaren deskribapena

## Zure zirkuituaren laugarren urratsa



Oiartzun ibaitik helmugara joateko, Makutsoko bidean egongo zara. Aurrera jarraituz gero Zokoloko bidea hartuko duzu.

### Deskribapena

Zokoloko bidetik aurrera jarraituta Olaizola jatetxea eskuinaldean utziz Lesakako bidea hartuko duzu. Lesakako bidetik aurrera eginez, Arritxuloko aterpetxea eskuinaldean utziz. Aurrera jarraituta bidegurutze bat ikusiko duzu. Bidegurutze horretan eskuinean dagoen erreka ondotik joan behar duzu. Aurrera jarraituta Mairubaratzeko erreka jarraitu eta orduan iritsiko zara Bianditzera.

## Zure zirkuituaren bostgarren urratsa



Bianditzetik helmugara joateko,

### Deskribapena

egin Bianditzera iristeko egin duzun bide berdina baina aurkako norabidean Makutsoko bidera iritsi arte. Makutsoko bidetik jarraituta Haurtzaro ikastola ezker aldean utziz, plazaraino iritsiko zara. Udaletxearen parean jarriz gero, eskuinaldean geratzen den malda jaitsita iritsiko zara Tolaitara.

# Bisitarientzako gomendioak

Nahi izanez gero, kamara bat eraman dezakezu argazkiak ateratzeko.

Ez ahaztu aterkia eramatea badaezpada.

No lleves comida para los animales, que ellos ya se la buscan solos.

Si quieres caminar, anda por la acera.

Put your rubbish in the rubbish bins.

Â

Dress comfortably for your tour.